



UMANDI GURASO ELKARTEA

www.umandi.net/ampaumandi

GURASO ELKARTE BILERA

Umandi ikastolan 2013ko Ekainaren 6an, eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuaz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari ordea), Yolanda Castillo (diruzaina) Itsaso Imaz (idazkaria), Nagore Montoya, Alberto Torrecilla, Carlos Sanz, Eneko Etxegarai, M^a Mar Álvarez, Ana Arroyo, Encarna Bonilla, Juan Carlos Varela, Txeti De Felipe.

Hasiera ordua: 19.00

Bukaera ordua: 20:30.

EGUNEKO AZTERGAIK

- AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA:

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen irakurritzat eta onartutzat ematen da.

- IKASTOLAREN ASEGURUA:

Aseguru etxe ezberdinak begiratu eta aztertzen aritu da.

ALLIANCE: prezio erdira ateratzen da baina askoz mugatuagoa da.

SEGUROS BILBAO: 500 € merkeagoa eta oraingo aseguru bazelako babes ematen du.

- **BATZORDE BERRIAK:**

BARATZA BATZORDEA: Irakasleak proiektuarekin bat egiteko prest daude.

Udaletxeko teknikari bat etorri zen aztertzeraz eta oso erraza moduan aurkeztu zuen. Eskola kontseiluan onartu behar da eta ondoren guraso talde bat atera beharko zen proiektua aurrera eramateko.

ELKARTRUKE BATZORDEA: Bi truke egun egitea proposatzen da, bat Urrian eta bestea Maiatza inguruan.

- **IKASTOLAREN JAIKO KARTELA:**

Ikastolaren jaiaren kartelak eginda daude.

- **ESKOLA KONTSEILUAREN KIDE BERRIAK:**

Eskola kontseilurako hiru kide berri onartu dira.

- **BATZORDEEN EGOERA EGUNERATUA:**

IKASTOLAKO JAIA:

Udaletxeak esan du ikastolako jaiak sartu daitekeela diru laguntza lortzeko; baldintza da dena fakturarekin aurkeztu behar dela, datorren urterako aztertuko da.

Antolaketa aurrera doa, 3 puzgarri, kontsolak, joko eremua, balanbikak etab.

Ostiralean ornikuntzarako eta taberna jartzeko jendea behar da.

Momentuz ez dago inor musikaz arduratzeko.

Bazkaltzeko 241 pertsona daude.

KANPOKO EKINTZAK:

Diputazioaren diru laguntza 55€ multikirolean izen emandako haur bakoitzekoa da. 20€ monitore eta topaketa bakoitzeko.

Ekintzak multikirol motakoak behar dute izan.

Kanpoko ekintzen informazioa Ekainean egutegi motakoa izango da eta Irailean liburuska bat.

Izen ematea on-line edo telefono bidez burutu ahal izango da.

Kanpoko ekintzen arautegiaren gainean aipatzen da Julenek pasatuko digula eta aztertu egin beharko dugula eta elkarbitza komisiotik pasatu behar dela.

Kanpoko ekintza berriak daude: 4 urtekoentzat psikomotrizitatea eta 1. 2. 3. Eta 4. Mailarako antzerkia astean behin.

Julen(kanpo ekintzen arduraduna) Facebook eta blog ean gehitzea proposatzen da.

Kanpoko ekintzerako kuotak bi zatitan ordaintzeko posibilitatea irekiko da.

DENON ESKOLA:

Komenigarria litzateke Denon Eskolako bileretara joango den ordezkari berria azken bilerara joatea.

Eskola publikoaren jaia LOMCE-aren aurkako eta eskola laikoaren aldeko protestez betea egon zen.

Beste aztergairik gabe bilera bukatutzat emango da 20:30 etan.

Nuria Alonso

Itsaso Imaz

-Lehendakaria-

-Idazkaria-